

## Donostiak gida didaktiko bat aurkeztu du, hiri-espazioaren bidez berdintasuna lantzeko

*Gida, fitxa biografikoak eta ikasgelarako jarduerak jasotzen dituenak, 2026ko Eskola Jardueren Udal Katalogoarekin batera argitaratu da.*

Donostiako Udalak [Mapandreak](#) gida didaktikoa aurkeztu du. Baliabide pedagogiko bat da, helburu duena irakasleek ikasgelan lantzea emakumeek hirian izan duten presentzia historikoa. Kaleen, eskulturen eta espazio publikoko beste elementu batzuen izenak aztertuz, materialak ikasleak gonbidatzen ditu emakumeek Donostiako bizitza sozial, kultural eta politikoari egindako ekarpenei buruz gogoeta egitera.

Gida Mapandreak elkarteak egin du, eta hiriko kaleei eta espazioei izena ematen dieten emakumeen fitxa biografikoak jasotzen ditu, bai eta adin eta gai desberdinetara egokitutako jardueren proposamenak ere. Bereziki pentsatuta dago gizarte-zientziarako, historiarako, arterako eta herritarren hezkuntzarako, eta eskuragarri egongo da, doan, Udalaren webgunean, formatu digitalean.

«Mapandreaken bidez, gure ikasleek hiriari beste begi batzuekin begiratzen ikastea nahi dugu. Izan ere, berdintasuna kalean ere lantzen da», Iñigo García Hezkuntzako zinegotziak esan duenez.

Gida Mapandreaken proiektuaren osagaietako bat da, eta «Emakumeon Donostia» mapa digitalaren jarraipena (Udaleko Berdintasun Bulegoak 2019an argitaratu zuen, berdintasunean espezializatutako beste erakunde batzuekin batera).

### Jardueren katalogoa

Aurkezpenak [2026ko Eskola Jardueren Udal Katalogoaren](#) aurkezpenarekin kointziditu du. Katalogo hori irakasleei zuzendutako tresna bat da, Udalak ikastetxeen eskura jartzen dituen jarduerak beren programazioan txertatu ahal izateko. Bisitak, lantegiak, hitzaldiak eta irteerak ikasgelako lanaren osagarri dira, eta dozena bat udal arlok eta udal erakundek baino gehiagok landu dituzte, besteak beste, Donostia Kulturak, Cristina Enea Fundazioak, Euskara Zerbitzuak, Donostia Kirolak, Mugikortasunak edo Udaltzaingoa.

Proposamenak lau eremuren inguruan antolatzen dira: Hezkidetzeta, Herritartasuna, Kultura eta Osasuna eta Ingurumena. Hezkuntza-etapen

# Prensa oharra

## Nota de prensa



arabera sailkatuta daude, Haur Hezkuntzatik hasi eta Helduen Hezkuntzaraino, kontsulta errazteko. Katalogoa paperean banatuko da ikastetxeen artean, 300 ale inprimatu baitira, eta formatu digitalean ere eskuragarri egongo da Udalaren webgunean.

«Gure helburua da ikastetxeek toki bakar batean izatea Udalak eskaintzen dizkien bitarteko guztiei buruzko informazioa, planifikatzea erraza izan dadin eta baliabide horiek ahalik eta gehien aprobetxatu ditzaten», adierazi du Iñigo García.

Bi materialak Donostiako Udalaren webgunean kontsulta daitezke:  
[www.donostia.eus](http://www.donostia.eus)